


FUNTSEZKO ELKARTEAK

Atal honetan gure produktua merkatura iristeko egin behar ditugun kontaktuak azalduko dizkizuegu, hau da, egin beharreko elkarteak.

Lana egiteko lokal bat beharko dugu eta horretarako UGGASArekin (Urola Garaiko Garapenerako Agentzia S.A.) kontaktatu beharko dugu. Hauek ekintzaile berriei laguntzen diete, izan ere, hilean 30 euro soilik ordainduz lan egiteko lokal bat alokatzen dute argindarra, ura, gasa eta interneta barne.

Gure bizikleten egiturak, hau da, bizikletaren moldea edo basea lortzeko, bizikletak ekoizteko enpresa bat behar dugu, kasu honetan "Quickie Shark RT" enpresarekin hitz egingo dugu egiturak beharrezkoak direlako gure bizikletak egiteko. Bizikletaren barruko osagaiak lortzeko, osagai elektrikoak lortzeko "Marelli España S.A"rekin kontaktatuko dugu, horrela gure bizikletaren



barrualdeko osagaiak, kable guztiak, elektrizitatea, funtzionatzeko behar dituen osagai guztiak lortzeko ditugu. Horretaz gain, norbait behar dugu gure bizikletak egiteko edo osagaiak ipintzeko, horretarako gure enpresan moldatzen den mekaniko batekin kontaktatuko dugu.

Publizitatea lortzea oso garrantzitsua da modu honetan ezagunagoak egiten garelako. Honetarako "Txirindulariak.com", "Alex Roca" "Ibon Zugasti" on-line eduki sortzaileekin kontaktatu behar dugu, hauek beraien web orrian edo beraien youtubeko kanalean publizitatea egin diezaiguten. Hauekin kontaktatzea erraza da beraien web orrian "kontaktua" deituriko atal bat dutelako.

Gure enpresako diru guztia gordetzeko, gure irabaziak barne, banku bat behar dugu, gure kasuan BBVA bankua izango da. Banku hau aukeratu dugu bezeroarekiko tratua ona eskeintzen dutelako eta gure beharretara gehien gerturatzen direnak direlako. Dirua gordetzeaz gain, prestamuak eskatuko ditugu, gure enpresa hasieran aurrera eramateko.

Bizikletak entregatzeko, “Correos”-ekin kontaktatuko dugu, beraiek gure produktua bezerorengana eramateko. Horrela, azkar eta ondo iritsiko zaizkie bizikletak, Espainia mailan ondo barneratuta dagoelako.



Gure enpresan moldatzen diren langileak beharko ditugu, hau da, diseinatzaile bat, biziklerari bere osagaiak ipintzeko beste bat, dirua kontrolatzeko beste bat eta bezeroekin hitz egiteko beste bat. Beraz, langileak lortzeko, ETTrekin (Aldi Baterako Laneko Enpresa) kontaktatuko dugu. Modu honetan behar ditugun langileak lortuko ditugulako.